

Eskola-segregazioa Euskal Autonomia Erkidegoan: Eibarko eskola-mapa berriari buruzko ikuspegiak

Maddi Alberdi San Martin

UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko doktoregaia

Azken urteotan, Europan, eskola-segregazioak kezka handia eragin du hezkuntza-komunitatean nahiz herritarrengan, eta, horrek, esparru horretan egindako ikerketen kopurua nabarmen hazi du. Euskal Hezkuntza Sistema ere hainbat ikerketaren ardatz izan da, baina oraindik oinarri teoriko sendoa falta da. Ikerketa honetan, Eibarko hezkuntza-testuingurua aztertzen da, bereziki eskola-segregazioa arintzeko bertan ezarri zen esku-hartzea. Eibarren diseinatutako eta inplementatutako eskola-maparen arrazoiak, helburuak eta ondorioak aztertu dira. Metodologia mistoa erabili da: alde batetik, Eibarko eskoletako datu kuantitatiboak bildu eta aztertu dira; bestetik, datu kualitatiboak eskuratu dira hezkuntza-komunitateko profesionalekin egindako elkarrizketa sakonen bidez. Ondorio nagusia da eskola-mapak ez duela aurreikusitako eraginik izan segregazioan. Gainera, besteak beste, kultura- eta jatorri-aniztasunean eta euskararekiko atxikimenduan eragina izan du.

GAKO-HITZAK: Hezkuntza · Segregazioa · Kultura-aniztasuna · Euskararekiko atxikimendua.

School segregation in Basque Autonomous Community: views on the new school map in Eibar

In recent years, school segregation in Europe has raised major concerns among the educational community and the public, leading to a notable increase in related research. The Basque Educational System has also been the focus of various studies, although a solid theoretical framework is still lacking. This study examines the educational context of Eibar, specifically analyzing the intervention implemented to address school segregation. It explores the rationale, objectives, and outcomes of the newly designed and implemented School Map in Eibar. A mixed-method approach was used: quantitative data from Eibar's schools were collected and analyzed, while qualitative data were obtained through in-depth interviews with educational professionals. The main conclusion is that the School Map has not achieved the anticipated impact on segregation. Moreover, it has also affected aspects such as cultural and origin diversity and attachment to the Basque language.

KEY WORDS: Education · Segregation · Multiculturalism · Attachment to the basque language.

<https://doi.org/10.26876/uztar.5099>

Jasotze-data: 2024-03-08

Onartze-data: 2024-07-01

1. Sarrera

Ikerketa honen oinarria EHUKo Master Amaierako Lana da eta eskola-segregazioa, kultura- eta jatorri-aniztasuna eta euskararekiko atxikimendua dira aztertu diren ikergai nagusiak. Horretarako, Eibarko (Gipuzkoa) «eskola-mapa»¹ berria diseinatzearen eta inplementatzearen arrazoiak, helburuak eta emaitzak izan dira lan honen analisiaren oinarri. Hau da, lan honen helburu orokorra Eibarko eskola-mapa berria aztertzea izan da eta horren baitan helburu bikoitza kokatuko dugu: alde batetik, Eibarko eskola-mapa berria diseinatzeko eta inplementatzeko arrazoiak eta helburuak ezagutzea, eta, bestetik, gaur egun arte mapa berriak izan dituen emaitzak aztertzea.

Euskal Herrian, azken urteetan, hezkuntza- eta kultura-arloko hainbat gizarte-eragileri, erakunderi, eta herritarri, oro har, kezka eragin die aniztasunaren kudeaketa okerrak eragindako eskola-segregazioak. Eusko Ikaskuntzaren arabera, eskola-segregazioa da «lurralde eta hezkuntza-maila bereko ikastetxeen arteko ikasleen banakera desberdin eta desorekatua, euren lurralde-jatorri, etnia, kultura, hizkuntza, gaitasun, erlijio edo, batik bat, maila sozioekonomikoaren araberrakoa» (2022, 3. or.).

Segregazioaren auziari lotuta, aipatzekoa da immigrazioaren gorakadak eta globalizazioak euskal gizartean errealitate berri bat sortu dutela azken hamarkadetan. Euskal Herrian gero eta kultura eta jatorri ezberdin gehiagotako herritarrak daudela esan genezake, hau da, gizarte-errealitatea gero eta pluralagoa dela zentzu horretan. Jakin badakigu, aniztasuna aberasgarria izan daitekeela egoki kudeatuta; hala ere, aipatutako aldaketek, gizartearen aniztasunaren edo homogeneousutasunaren handitzeak, kultura ezberdinen pilaketak eta abarrek sortutako testuinguruak, batzuetan, kontrako erreakzioak sortzen ditu estatutik gabeko nazioetan (Kymlicka, 2017). Hain zuzen, ikerketa-eremua nazio, kultura eta hizkuntza gutxitua duen herria izanik, kultura- eta jatorri-aniztasunaren kudeaketarako posizio berezia dela esan genezake.

Euskal Herriko errealitatea bi estatutan eta hiru administrazio-esparrutan banatuta dagoela kontuan hartuta, eremu bakoitzerako ikerketa espezifikoak egitea beharrezkoa dela uste da. Hori horrela, ikerketa honetarako Eibarko kasu-azterketa egitea erabaki da; horrela, esperientzia txikietatik ekarpen eta irakaspenak jasotzeko helburuarekin. Eibarren ere eskola-segregazioak kezka eragin du hezkuntza-komunitatean eta herritarrengan², eta, horri erantzuteko, eskola-mapa berriatu zuen Hezkuntza Sailak 2015ean: irakaskuntza publikoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiak eskola bakar batean elkartzea izan zen emaitza nagusia. Maparen diseinu eta inplementazioak eztabaida eta gatazka handiak sortu zituen herri-mailan. Horregatik, maparen diseinuan eta hark izandako ondorioetan jarri da arreta, hutsuneak eta indarguneak identifikatzeko asmoz. Hori horrela, Eibarko

1. Eskola-mapa deritzogu hezkuntza-zentroetako ikasleen banaketa nola egin azaltzen duen proiektuari.

2. Idatzi ugari aurki ditzakegu J.A. Mogel Ikastolako guraso-elkartearen web orrian: <https://mogelge.com/>. Baita Eibarko herri-aldizkarian ere: [https://etakitto.eus/albisteak/herriko-eskola-mapa-eztabaidan, besteak beste](https://etakitto.eus/albisteak/herriko-eskola-mapa-eztabaidan,besteakbeste).

kasuan segregazioari nola erantzun zaion, zergatik eta zer emaitza izan dituen aztertu da. Horretarako metodologia-teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili dira: lehenengoei dagokienez, Eibarko eskoletako datu-bilketa eta analisia burutu da; bigarrenaren kasuan, Eibarko hezkuntza-komunitateko profesionalen iritzi eta pertzepzioak bildu dira sakoneko elkarriketen bidez.

Errealitatea ezagutzeaz gain, azpimarratzekoa da eztabaida mahaigaineratzearen beharra: eskola-segregazioari erantzun bat emateko eta etorkizunean gure gizartean erdietsi nahi diren aldaketa sozial, kultural eta linguistikoetarako. Finean, hori lortzeko itxaropenez diseinatu da ikerketa hau; egoeraren diagnosis egitea funtsezkoa da, sistemaren ahulguneak topatu eta erronkei aurre egin ahal izateko.

2. Aurrekari teorikoak

Eskola-segregazioa ikasleen ezaugarri personal edo sozialen zein bizi-baldintzen araberrako ikastetxeen arteko banaketa desberdinarekin lotzen da. Horrela, segregazio mota ezberdinak bereiz daitezke: maila ekonomiko baxuagoa dutenen segregazioa, atzeritar jatorriko ikasleen segregazioa eta hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleena, adibidez (Guiral eta Murillo, 2023). Beraz, ikasleen arteko bereizketa sortzean datza, horretarako arrazoiak ugari izan daitezkeelarik. Eskola-zentroen publiko eta pribatu³ banaketa eta atzeritar jatorriko ikasleen kontzentrazio eta segregazioa dira gaur egun gehien aipatzen direnak (Etxeberria *et al.*, 2018). Hori horrela, eskola-segregazioari buruzko eztabaida, politikoa zein akademikoa, ikastetxe ezberdinen arteko atzeritar jatorriko ikasleen banaketan oinarritu ohi da, zehazki, ikastetxe batzuetan gertatzen den atzeritar jatorriko eta klase baxuko ikasleen kontzentrazioan (Benito eta González, 2007).

Eskola-segregazioa azaltzeko faktoreen artean ezberdintasun sozioespaziala garrantzitsutzat hartu izan da, hau da, eskolak, sarri, inguru geografikoaren isla izaten direnez, bizitoki-segregazioa eskola-segregazioaren kausatzat hartu izan da. Hala ere, zenbait autorek erakutsi dute eskola-segregazioa bizitoki-segregazioa baino handiagoa dela (Boterman *et al.*, 2019; Dignum *et al.*, 2022; Frankenberg, 2013, Guiral eta Murillon aipatua, 2023). Egia da hurbiltasun geografikoan oinarritutako ikastetxe-ereduek eskola-segregazioa sustatzen dutela, bizitoki-segregazioa gertatzen baita; hala ere, beste mekanismo segregatzaile batzuk ere aktibatzen dira. Hori horrela, kausak askotarikoak izan daitezke; horien artean, testuingurua, erakundeak eta gizarte- eta kultura-faktoreek hezkuntza-sisteman duten eragina. Hortaz, eskualde edo eremu geografiko bakoitzaren berezitasunek ere baldintzatu egiten dute (González, *et al.*, 2023).

Jatorriaz gain, klase-auziak ere eragin nabarmena du. López Salak dio segregazioaren helburuak direla «arrazen arteko bereizketa ziurtatzea, gutxiengoek gizartean parte hartzea eragozte, eliteen boterea erreproduzitzea eta talde nagusiak ekonomiaren gainean duen kontrola indartzea» (2005, 78. or.). Hori horrela, aipatzekoa da atzeritar jatorriko ikasleen kontzentrazioa segregazio-

3. Argitu beharrekoa da artikuluan «pribatu» erabiltzen den arren, gehiengoak itunpekoak direla; gainera, itunpekoen artean ere sare ezberdinak daude: Kristau Eskolak, Ikastolak, etab. Hala ere, eta zehaztasunek duten garrantzia kendu gabe, «pribatu» erabiliko dugu modu orokorrean ari garenetan.

arazoaren icebergaren punta besterik ez dela. Izan ere, atzeritar jatorriko ikasleen portzentaje handia duten eskoletako ghetizazio-prozesuetan arreta jartzea bezain garrantzitsua da herri berean horrelako eskolarizaziorik ez dutenetan arreta jartzea. Hau da, kolektibo horretako kideen banaketa aztertzea garrantzitsua da, baina, aldi berean, baita autoktonoak diren ikasleena ere, beren kapital familiar, kultural eta sozioekonomikoa kontuan hartuta. Bi kasuetako ikasleen kontzentrazioak efektu negatiboak eduki ditzake kohesio sozialari dagokionez (Benito eta González, 2007).

Hori dela eta, segregazioari aurre egiteko neurriak ezartzen dira eta horren adibide dira ikasleak ikastetxeetan esleitzeko erabiltzen diren mekanismoak, adibidez (González *et al.*, 2023). Hala ere, neurri horiek zehazterakoan kontuan hartzekoa da familia guztiek ez dutela aukera-berdintasunik prozesu batzuetan: maila sozioekonomikoak eta kulturalak, ikasketa-mailak, mugikortasun-aukerak, informaziorako sarrerak eta abarrek erabat baldintzatzen dute (Bernal-Agudo eta Vera-Báez, 2019). Finean, eskola-segregazioa justizia sozialarekin lotu behar da. Eskola-segregazioa zapalkuntza eta bazterketa forma bat da, zuzenean ikasleengan eragina izateaz gain, gizarte justuago baten eraikuntzan ere eragina duena. Horren aurrean, ikerketak paper garrantzitsua du arazo horren aurka egiteko, kausa eta ondorio nagusiak aztertu eta erabakiak hartzen laguntzeko ekarpenak egiten baititu (Guiral eta Murillo, 2023). Eskola-segregazioaren inguruko ikerketek tradizio luzea dute eta fenomeno hori aztertzea oso garrantzitsua da politika publikoak eta esku-hartzeak egiteko eta ezartzeko (Musset, 2012; Nusche, 2009, Madaria eta Vilan-en aipatua, 2020).

3. Ikerketa-testuingurua

3.1. Segregazioa Euskal Autonomia Erkidegoan

Eskola-segregazioak immigrazioarekin loturak dituela ikusi dugu, hau da, atzeritar jatorriko ikasleen eta autoktonoak diren ikasleen kontzentrazioak daude eztabaidaren muinean. Hori horrela, Euskal Herria ikerketarako kasu berezia dela esan genezake; izan ere, estaturik gabeko nazio bat den heinean, immigrazioarekiko jarrera ezberdinak izan dira. Triandafyllidou-ren (1998) arabera, identitate nazionala «bestearekiko» kontrastean eraikitzen da, hau da, «bestearen» kontzeptua praktika nazionalistarekiko banaezina da. Immigrazioak naziotik egiten den naziokidearen definizio eraikia problematizatzen du (Gil Araújo, 2006, eta Triandafyllidou, 1998, Iraolan aipatua, 2014, 100. or.), eta, horrek, harreman gatazkatsua sortzen du immigrazioaren eta nazionalismoaren artean. Hori dela eta, Euskal Herriko kasuan hainbat diskurtso garatu dira testuinguru eta garai ezberdinetan.

Diskurtsoak aldatu diren gisan, immigrazioa bera ere aldatu da. Egungo immigrazioa Espainia kanpoko herrialdeetan iturburua duena da nagusiki, horrek, etorkinen desberdintasun-pertzepzio handiagoa eragiten du. XXI. mendearen hasieran heldu den migrazio-fluxua oso fenomeno garrantzitsua izan da Euskal Autonomia Erkidegoan. 2017an EAEko populazioaren % 9 atzerrian jaioetakoa zen (Barquín, 2017, 109. or.). Ikuspegiko, Immigrazioaren Euskal Behatokiko,


2023. urteko datuei erreparatzen badiegu (Ikuspegi, 2023), EAEn %12,4ra hazi da atzeritar jatorriko biztanleriaren kopurua. Gainera, hazkunde kuantitatiboaz gain, immigrazioaren errealitateak ezaugarri berriak eskuratu ditu: egun «bi kultura-aniztasun ematen dira, garatzen dira batera: estaturik gabeko nazionalismoak aldarrikatzen duena, batetik, eta immigrazioak dakarrena, bestetik» (Iraola, 2012, 967. or.).

Testuinguru horretan, eskola-segregazioa gero eta handiagoa da. Alabaina, azpimarratu behar da garrantzitsua dela immigrazioa aztertzen denean ikerketa-eremu horren mugez kontziente izatea; hau da, immigrazioaren gaitzat hartzen ditugunak, oro har, herritar guztiei dagozkiela, eta ez etorkinei soilik (Iraola, 2012). Eta beraz, eskola-segregazioaz eta jatorri- eta kultura-aniztasunaz ari garenean, gizarte osoaren azterketaz ari garela eta ez etorkinez soilik. Hori horrela, ikerketa honetarako kontuan hartuko da hezkuntzaren eginkizun sozialerako gaitasuna eta eskolak kultura-aniztasunerako eta inklusiorako izan dezakeen ekarpena, baina azpimarratu nahi da eskolatik kanpo gelditzen denaren indarra handia dela: gizartearen balioak, kontsumitzen diren produktu kulturalak, harremanak eta abar (Barquín, 2017). Finean, eskola-segregazioak «dimentsio soziokultural, soziolinguistiko eta sozioekonomikoak ditu eta, une historiko honetan kausak lehia neoliberalari daude lotuta, arrazakeria eta klasismoarekin batera» (Eusko Ikaskuntza, 2022, 4. or.). Beraz, arazoa sistemikoa da eta gizarteko faktore ugari eragiten dute. Horregatik, aurre egiteko neurriak ezin dira hezkuntzara soilik mugatu (Eusko Ikaskuntza, 2022).

Esandakoak esanda, ikerketek erakusten dute eskola-segregazioa Euskal Hezkuntza Sistemaren ezaugarria dela; alabaina, dimentsio eta forma ezberdinak har ditzake. Hain zuzen, EAEko hezkuntza-sistemaren bereizgarrietako bat da eskola-eskaintza hiru elementuren arabera bereizita egotea: ikastetxeen titulartasuna, hezkuntza-proiektua eta hizkuntza-eredua (Eusko Jurlaritz, 2018, 11. or.). Segregazioaz hitz egiten denean, gehienetan hiru elementu horietako ezberdintasunak izaten dira gako nagusi. Hala ere, kasu konkretuetara jotzen badugu, zehazki, Eibarko kasua aztertzen badugu, bestelako testuinguru batekin egingo dugu topo: titulartasun publikoko eta hizkuntza-eredu bereko eskolen artean gertatzen da eskola-segregazioa. Berezitasun horregatik, zeresan handia eman du afera honek, hain zuzen, ikerketa egiteko garra piztu duena.

3.1.1. Titulartasuna

Puntu honetan eskola-segregazioaren oinarrian dagoen sistema duala aztertuko dugu, hau da, publikoaren eta pribatuaren artean bereizten den hezkuntza-sistemaren sare bikoitza. Hurrengo grafikoan EAEko eskolaren titulartasunaren araberrako atzeritar jatorriko ikasleen banaketa ikus dezakegu. EAEn 2020-2021 ikasturtean Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatu diren ikasleen % 10,26k atzeritar jatorria du: % 14,19 ikastetxe publikoetan eta % 5,94 ikastetxe pribatuetan. Beraz, ikus dezakegun bezala, atzeritar jatorriko ikasleak ikastetxe publikoetan biltzen dira batez ere.



1. irudia. EAEko eskoletako atzerritar jatorriko ikasleen banaketa eskolaren titulartasunaren arabera, 2020-2021. Iturria: Eustat (2022). Egileak egina.

Azken urteotan, eta ikerketa honetan egingo den Eibarko kasu-azterketarekin lotuta, aipatzekoa da ikastetxe publikoen arteko segregazioak gora egin duela. Segregazio espazialaz gain, metodologia, hizkuntza, programa edo espezializazio-eskaintza desberdinak izatea dira horren kausa nagusietakoak. Horrela, Steilas-en arabera, esan dezakegu «neoliberalismoak eragina izan duela eskola publikoan ere, eskaintza bereiziaren ideiarekin bat egin baitu ikasle gehiago eta “hobeak” [...] bereganatzeko» (2021, 35. or.).


3.1.2. Hizkuntza-ereduak

1983ko elebitasunari buruzko dekretuak ezarri zituen gaur egun indarrean dauden hizkuntza-ereduak⁴: A, B, D eta X, titulartasun publiko zein pribatuetan garatzen direnak (Silván, 2021). Aztikerren (2018) txostenaren arabera, legea indarrean jarri zen garai horretan, 1982-1983 artean, ikasle guztien % 78 A (eta X) ereduaren zebilen. Hiru hamarkadaren ostean, ikasleen % 18,6 da eredu horretan gelditzen dena, B ereduaren pare, X ereduak ia desagertu egin da eta D ereduak % 60 gainditu

4. A ereduaren irakasgai guztiak gaztelaniaz jasotzen ditu ikasleak eta euskara gainerako irakasgai amankomunak bezala ematen da; B ereduaren irakasgaiak emateko gaztelania zein euskara erabiltzen da; D ereduaren irakasgai guztiak euskaraz jasotzen ditu ikasleak eta gaztelania gainerako irakasgai guztien gisan ematen da. Hiru eredu hauek gain, bada X deritzon beste bat, gaur egun oso indar gutxi duena. Eredu hori gaztelania hutsean ematen da, eta, beraz, eredu elebiduna izateari uzten dio (Eustat, 2022).

du. Hala ere, ikastetxeen titulartasunari dagokionez, ezberdintasunak ikus ditzakegu hizkuntza-ereduetan. Hasiera batean antzekoa bazen ere, gaur egun sare publikoan matrikulatuta daudenetatik % 76,2 D ereduan ari dira, eta pribatuan, aldiz, % 48,4 (Aztiker, 2018, 18. or.).

Gainera, hizkuntza-ereduetan izan diren aldaketak ezberdinak izan dira ikasleen profilaren arabera. Orokorrean, sare publikoko eskolak dira ikasleria zaugarriena biltzen dutenak, hizkuntza-eredua dena delakoa izanda ere. A eta B ereduetan biltzen da egoera zaugarrian dauden ikasleen ehuneko handiena. A eredu publikoko ikasleak egoera sozioekonomiko baxuena dutenak dira, gero eta homogeneoagoa da profila eta atzeritar jatorriko ikasleen ehuneko handia bildu ohi dute. Zehazki publikoak diren A eta B hizkuntza-ereduetan % 38 estatutik kanpo jaiotako ikasleak direla aipagarria da. Bigarren belaunaldiko atzeritar jatorriko ikasleak ere A eredu publikoan bildu ohi dira (Silván, 2021).




2. irudia. EAEko ikasleen matrikulazioa hizkuntza-ereduaren eta ikasleen jatorriaren arabera, 2020-2021. Iturria: Eustat (2022). Egileak egina.

Ikasleen jatorriaren araberrako hizkuntza-ereduetako matrikulazioetan azaltzen den bezala, 2020-2021 ikasturtean, atzeritar jatorrikoen artean % 33,73 A ereduan matrikulatu da, % 14,82 B ereduan, % 51,17 D ereduan eta % 0,28 X ereduan. Datu orokorreari erreparatzen badiugu ondorengo ikusiko dugu: matrikulatutako ikasle guztien % 14,42k A ereduan ikasten du, % 17,1ek B ereduan eta % 67,88k D ereduan. % 0,6k X ereduan. Beraz, atzeritar jatorria dutenen artean D ereduan

ikasteko joera txikiagoa eta A eredura jotzeko joera handiagoa da.

Azpimarratzekoa da «immigrazioak arazo berriak sortu baino, lehendik zeuden ahuleziak jarri ditu[ela] agerian; lehendik arazo zena argiago erakusten du[ela]» (Barquín, 2008, 113. or.). Hala ere, eskolak hiltun potentzialak hezteko duen gaitasuna dela eta, interesgarria da alderdi hori immigrazioarekin lotuta aztertzea (Barquín, 2008, 114. or.). Euskadiko Eskola Kontseiluak urtero bere txostenetan jasotzen duenez, hezkuntza publikoa da nagusiki etorkinen erronkari erantzuna ematen ari zaiona, fenomenoaren hasieratik haien seme-alabak euskalduntzen ari dena (Barquín, 2017, 115. or.). Baina hala ere, ahaleginak ahalegin eta publiko/pribatu sare dual horretatik haratago, hizkuntza-ereduek ere badute zer ikusirik eskola-segregazioarekin.



3. irudia. EAEko ikasleen matrikulazioak eskolaren titulartasunaren, hizkuntza-ereduaren eta ikasleen jatorriaren arabera, 2020-2021.

Iturria: Eustat (2022). Egileak egina.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, titulartasuna eta hizkuntza-ereduak aztertuta honako datuak aurkituko ditugu: orokorrean, ikastetxe publikoetan matrikulatu diren atzerritar jatorriko ikasleetatik % 34,44 A ereduan matrikulatu da, % 7,81 B ereduan eta % 57,75a D ereduan. Ikastetxe pribatuetan matrikulatu direnetatik % 31,85 A ereduan, % 33,23 B ereduan eta % 33,92 D ereduan.

Oraindik ere, beraz, atzerritar jatorriko ikasleek joera handiagoa dute A edo B ereduera jotzeko ikasle autoktonoek baino. Horren ondorio gisa, esan dezakegu, atzerritar jatorriko ikasleak joaten diren eskolak, hau da, A eredu publikoak eta A eta B ereduko kristau-eskolak, bertako ikasleek hautatzen ez dituztenak direla, hau da,

hutsik gelditzen direnak. Horrez gain, esan dezakegu ikastetxe batzuk «arnasgune» moduan ikusten direla Euskal Autonomia Erkidegoan, bai hizkuntzari, bai kulturari zein hezkuntza-mailari dagokienez, baina ikastetxe horietan familia mota batzuk kanpoan gelditzen direla (Barquín, 2017). Hala ere, Eustateko datuei erreparatuta, aurrera begirako joerari erreparatzen badiogu, esan dezakegu gero eta atzerriar jatorriko ikasle gehiago matrikulatzen dela publikoan Haur Hezkuntzan, eta, gainera, gero eta gehiago direla D eredua aukeratzen dutenak.

3.1.3. Planak

Ikerketa honen gai nagusia kultura- eta jatorri-arloko eskola-segregazioa, eta, horren baitan, hizkuntzaren afera dira. Hala ere, ikerketa-objektu nagusia Eibarko eskola-mapa berria denez, interesgarria da orain arte eskola-segregazioaren inguruan burutu diren plan batzuk ezagutzea. EAEn Eusko Jaurlaritzak burututako planen ibilbide bat egingo dugu, haien helburuak edo ardatzak zein izan diren ikusteko.

2003-2004 ikasturtetik aurrera, EAEko hezkuntza-sistemako ikasle etorkinen kopurua areagotzearen ondorioz, horretara bideratutako programa espezifikoak egin ziren 2003-2007 eta 2007-2010 urte-tarteetarako: «Ikasle etorkinei arreta emateko 2003-2007 programa» eta «Kulturartekotasunerako eta ikasle etorri berrien inklusiorako 2007-2010eko programa». Ebaluazioa egitean, burutako plan horiek asmo handikoak zirela eta helburuetako batzuei beste programa batzuetatik ere erantzun partziala ematen zitzaie la ondorioztatu zen. Hortik sortzen da «2012-2015eko eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko plana», besteak beste, kulturarteko ikuspegia indartzea eta ikasle guztien eskolatzeko inklusiboa ahalbidetzeko helburuarekin (Eusko Jaurlaritza, 2016).

2016tik 2020 bitarteko plana garatzeko hainbat hausnarketa egin ziren administrazio-mailan eta bi erronka nagusi zehaztu zituzten, alde batetik, guztientzako kulturarteko hezkuntza, eta, bestetik, ikasle etorri berriei hezkuntza-arreta ematea. Azken plan horiek Garapen Iraunkorrerako 2030 agenda barruan kokatzen dira, hemen ere, hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzat bizialdi osoan zeharreko hezkuntza-aukerak sustatzea bilatzen baita. Horrez gain, antzeko helburuei loturik, Heziberri 2020 eta Hamaika Esku programa ere aipatu behar dira (Eusko Jaurlaritza, 2018).

Ibilbide honetan ikus dezakegu gizarte hartzailearen jarrera edo helburuak aldatzen joan direla. EAEko hezkuntza-sisteman beraz, hasiera batean etorkinak gizarte hartzailean asimilatzeke joera izatetik, kultura-aniztasuna lantzeko eta hezkuntza-sistema pluralago bat sortzeko helburuak ezartzera pasa dira. Hala ere, ikusi beharko da praktikan plan hauek guztiek izan dituzten ibilbide eta praktikak.


Planak plan, aurreko puntuetan landutako informazioaren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren arazo nagusietako bat argi ikusi dugu: segregazioa. Horregatik, gaur egun eztabaidagai ohikoa den Euskal Hezkuntza Lege berriaren oinarritzko helburuetako batean kokatzen da. Eskola-segregazioaren eta hizkuntzaren harira, hainbat izan dira proposamenak egin dituzten eragile,

alderdi, profesional zein herritarrek, eta, beraz, gaiaren pertinentzia eta garrantzia nabarmena da.

3.2. Eskola-segregazioa Eibarren

3.2.1. Testuinguru historikoa, sozioekonomikoa, kulturala eta hezkuntza-zentroak

Eibar jarduera ekonomiko biziko herria denez, immigrazio handiko tokia izan da industrializaziotik gaur arte. Garai batean, Espainiako Estatuko immigrazioa jaso zuen batez ere, baina egun, estatuaz gaindiko immigrazioak pisu handia hartu du. Eustaten (2023) arabera, 2023ko urtarrilean 26.926 lagun bizi ziren herrian, horien artean atzeritik etorritako 3.848 lagun zeuden. Egun, biztanleriaren % 14,3 gutxi gorabehera etorkinak dira, beraz (Eustat, 2023). Horrez gain, Eibar atzeritar jatorriko ikasle gehien biltzen duen eta irakaskuntza-zentro gehien duen herrietako bat da EAEn (Eusko Jaurlaritza, 2018).



4. irudia. Eibarko HH eta LH mailetako eskola-mapa (2022). Eskolen titulartasunaren araberrako bereizketa egin da (Eibarko Udalak Debegesaren laguntzarekin diseinatutako mapa moldatua). Iturria: Amuategi (2022).

Hezkuntza-zentroei erreparatzen badiegu, HH eta LH mailetako zazpi zentro daude Eibarren, horietako bi itunpekoak eta bost publikoak. Itunpeko Kristau Eskolak dira La Salle eta Aldatze-Santa María de la Providencia, eta administrazio publikokoak Amaña, Arrateko Andra Mari, J.A. Mogel Ikastola⁵, San Andres eta Urkizu. DBH

5. Eskola publikoa den arren, herrian ikastola gisa ezaguna da eta horrela izendatuko da artikuluan; izan ere, ikastola-mugimendutik datorren ikastetxea da, 1993an publikatu zena.

mailan gaur egun hiru zentro daude, bi itunpekoak, La Salle eta Aldatze-Santa María de la Providencia, eta bestea publikoa, Eibar BHI, azken eskola-maparen emaitza izan dena.

3.2.2. *Eskola-maparen nondik norakoak*


Eibarko egoeraren honako deskribapen hau egiten du Eusko Jaurlaritzaren 2018 diagnostikoak:

Gipuzkoako udalerririk handienek Estatutik iritsitako etorkinak hartu izan dituzte lehenago, eta gero eta atzerriko etorkin gehiago dituzte orain ere. Eibarren, ikastetxe-eskaintza handia da, eta alde handia dago atzerriko ikasleen proportzio handiak dituzten Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxe publikoren eta bertako biztanleriak gehien eskatzen duen beste ikastetxe publiko baten artean. Itunpeko bi ikastetxeetan, berriz, ia ez dago atzerriko ikaslerik eskolatuta. Bigarren Hezkuntzako etapan, eskaintza publikoa bateratu edo elkartu egin da duela gutxi, eta horrek orekatu egin du eskola-mapa osaera sozialaren ikuspegitik.

Mapa berriaren aurreko testuingurua ezagutze aldera, Eibarko eskola-mapa ezberdinak izan zirela irakur dezakegu ikastolako guraso-elkarteak idatzitako txostenean (2015). Txosten horren arabera, 1996an ezarri zen DBH maila, eta beraz, Itzio BHI eta Armeria BHI sortu ziren, azken hori geroago Mogel Isasi BHI bihurtu zena. 2009. urtean dekretu berria atera zen DBHko ikastetxeak LHko edo Batxilergoko ikastetxeekin bateratu beharra aldarrikatzen zuena. 2014-2015 urte bitartean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila Eibarko zein beste herri batzuetako ikastetxeekin biltzen hasi zen eta eskola-mapa berriztu beharraz ohartu zen. 2015eko azarorako, maparen gaia oso garatua eta aurreratua zegoen eta proposamen bakarra mahaigaineratu zuten: DBH bakarra ezartzea Eibarren, hau da, Mogel Isasiren eta Itzioren fusioa.

Beraz, labur azalduta, 2014-2016 urte bitartean eskola-segregazioaren egoera zela eta, esku hartu beharra ikusi zen. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskola-plan berri bat egitea erabaki zuen Eibarren eta plan horretako erabaki nagusia aurrez zeuden Mogel Isasi BHI eta Itzio BHI institutuak izan ordez, DBH mailako ikastetxe publiko bakarra sortzea izan zen. Erabaki horren aurrean hainbat erreakzio, bilera eta liskar izan ziren herrian. Ikastolako guraso-elkarteak eta profesional batzuek elkarlanean bestelako proposamenak biltzen zituen txosten bat ere prestatu zuten. Ikastolako guraso-elkartearen eta profesionalen artean egindako txostenean hau proposatzen zen: herriko eskolak bi eremutan banatzea.

Proposamenak proposamen, 2015. urtean eskola-segregazioari aurre egiteko eskola-mapa berri bat burutu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Eibarren. Hezkuntza Sailaren proposamena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiak eskola bakar batean elkartzea izan zen. Erabaki horren aurretik DBH mailako bi eskola zeuden, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetako eskolek osatzen zituzten bi eskola-ibilbide bereizten zituztenak. Emaita gisa, segregazioari aurre egiteko asmotan, elkartu egin zituzten (fusioa) eta institutu bakarra sortu zuten Hezkuntza Sailaren erabakiz.



5. irudia. Eibarko J.A. Mogel Ikastolako guraso-elkartearen eskola-maparen proposmena. Iturria: J.A. Mogel Ikastolako guraso-elkartearen txostena (2015).

Eusko Jaurlaritzaren erabakiaren aurrean sortutako liskarrak eta izandako zenbait lanketak hainbat hausnarketa egiteko tarte zabaldu zuten, eta, besteak beste, artikuluko honen oinarri diren ikerketak egiteko grina ere piztu zuten. Ikerlan honetako informazioa elkarriketetatik eta datuetatik jaso denez, argi ikusi da Eibarko eskola-mapan esku hartu beharra. Horren harira, esku-hartze horren nondik norakoak, hartutako erabakiak, nola eta zergatik hartu ziren, zer eztabaida eman ziren, gaur egungo errealitatea zein den, aurrera begira nolako bilakaera espero den eta zer egin beharko litzatekeen aztertu da.

4. Metodologia

Ikerlan honen helburuei erantzuteko, metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak erabili ditugu elkar elikatzen baitute. Metodo mistoa erabili dugu beraz, horrela, bi gerturapenen onurak lortuz. Caro *et al.*ek (2015) diote metodo kuantitatiboak datu neurgarriak eta kuantifikagarriak erabiltzen dituela, eta kualitatiboak, aldiz, errealitateari subjektuek ematen dizkioten esanahiak eta errealitate horri buruzko ikuspegiak aztertzeke balio duela. Santiago *et al.*en (2018) arabera, bi metodo edo paradigma hauek erabiltzeak bakoitzaren alde onez baliatzeko aukera eskaintzen du, eta, horrela, emaitzen aberastasuna eta ondorio indartsuak lortzea.

Ikerketa-teknikei dagokienez, elkarriketa sakonak izan dira nagusi. Izan ere, Juaristik (2003) dioenaren arabera, erabakiak nola, zergatik eta noiz hartzen diren behar bezala aztertzeke, adibidez, ezinbestekoak dira sakoneko elkarriketak. Ordubete inguruko bederatzi sakoneko elkarriketa erdi-egituratu izan dira eta gidoia izan da erabili dugun tresna. Lagin txikia hautatu da, eta, esanguratsua izateaz gain,

elkarrizketak tentuz aztertzeko abagunea eskaini du (Young eta Casey, 2019). Lau elkarrizketa Eibar BHIko profesionalekin egin ditugu, horien artean, zuzendaritzako kideek zein arlo ezberdinetako irakasleek parte hartu dute. Gainontzeko bost elkarrizketak Eibarko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetako eskola publikoko zuzendaritzako kideekin egin ditugu: Amaña, Arrateko Andra Mari, Urkizu, San Andres eta J.A. Mogel ikastetxeetan. Elkarrizketatu guztiek eskola-mapa berria inplementatu aurreko eskola-mapa ezagutu zuten eta irakaskuntzan hamar urte baino gehiagoko esperientzia dute.

ELKARRIZKETATUAK	Eskola	Generoa
1	Eibar BHI	Gizona
2	Eibar BHI	Emakumea
3	Eibar BHI	Emakumea
4	Eibar BHI	Emakumea
5	San Andres	Emakumea
6	Arrateko Andra Mari	Gizona
7	Urkizu	Emakumea
8	Amaña	Gizona
9	J.A. Mogel	Emakumea

6. irudia. Elkarrizketetako lagina. Iturria: Egileak egina.

Analisia zehaztasunez egin ahal izateko, zortzi elkarrizketa grabatu eta transkribatu ditugu eta bakar bat idatziz jaso dugu. Horien bidez, Eibarko hezkuntza-komunitateko profesionalen iritzi eta pertzepzioak jaso ditugu. Horretarako, *zergatik*, *zertarako* eta *emaitzak* eskemari jarraituz sistematizatu ditugu elkarrizketak, hau da, «konfigurazio narratiboen» analisia egin da (Conde, 2009), eta, beraz, ikerketa-helburuak izan dira analisirako kategoria nagusiak. Horrez gain, profesionalen iritziak mailakatu ditugu: gehiengoaren, gutxiengoaren eta salbuespenen arabera. Hala ere, pertzepzio- eta iritzi-aniztasun handiak eta bakoitzaren ezberdintasunek zaildu egin dute sailkapen hori, eta, beraz, iritzi denak erakusten edo aintzat hartzen saiatu gara aztergaia osotasunean eta konplexutasun guztiekin aztertu ahal izateko.

Elkarrizketez gain, datuen bilketa eta analisia egin da. Zehazki, mapa berriak eskola-segregazioan lortutako emaitzak ezagutzeko, Eibarko eskoletako ikasleen kopuruaren datuak erabili ditugu. Eskolaz eskola, ikasleen matrikulazio kopuruak eskatu ditugu, hau da, zenbat ikasle matrikulatu diren 2021-2022 ikasturtean ikasmila bakoitzean eta horietatik zenbat diren atzerritar jatorriko ikasleak. Horrela, hezkuntza-zentro bakoitzeko atzerritar jatorriko ikasleen proportzioak ezagutu ditugu eskolen arteko alderaketa egin ahal izateko eta segregazioari lotutako ondorioak atera ahal izateko.

5. Analisia eta emaitzak

5.1. Eibarko eskola-mapa berria diseinatu eta inplementatzeko arrazoiak eta helburuak

5.1.1. Eskola-mapa berriaren arrazoiak

Eibarko eskola-mapa berriaren arrazoiei dagokienez, orokorrean, elkarriketatu guztiek bat egiten dutela esan dezakegu; izan ere, eskola-segregazioa izan da arrazoi aipatuenetakoa. Segregazioaren afera titulartasun publikoko eskolen arazo izan ohi dela ikusi dugu datuetan eta elkarriketatutako profesionalen ikuspuntua ere bide beretik joan da, hau da, egoera sozioekonomikoaren arabera ikasleak ikastetxe publikoetan edo itunpekoetan elkartzearen joeraz hitz egin dute.

Jakin badakigu titulartasunaren arabera eskola-segregazioa ez dela berria, eta ikusi dugunez, Eibarko kasuan ere gertatzen da. Hala ere, eskola-mapa berriaren diseinua eta inplementazioa titulartasun publikoko eskoletan egin da, itunpeko ikastetxeak alde batera utzita. Beraz, kasu berezia izanik, honetan sakonduko dugu jarraian, hau da, Eibarko titulartasun publikoko DBH mailako ikastetxeen fusioaren arrazoietan.

Profesional gehienek hitzetan ikasle-profil oso ezberdinak biltzen zituzten DBHko bi eskola zeuden Eibarren: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zentroen ibilbidea aipatzen dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako segregazioaren arrazoi nagusi gisa; hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi zentroetara, Mogel Isasi eta Itziora zihoazen bi ibilbide bereizten zirela Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetan, eta horrek, bi zentroetako ikasleria guztiz ezberdina izatea eragiten zuela. Ikasleen profil ezberdinak bereizteko hainbat ezaugarri aipatu dituzte: auzoetako segregazioa, atzerriar jatorriko biztanleriaren pilaketa, klasea, euskalduntasuna, pribilegioak eta abar.

«Mapa fisikoaren arabera, batzuk joaten ziren Iturburura eta gero Mogelera eta beste ikastetxeetatik Itziora. Orduan, noski, maila sozioekonomikoa, garrantzi handikoa dena, eta aparte immigrazioa [...]. Iturburura joaten zirenak maila sozioekonomiko altuagokoak ziren eta esango dugu “hemengoak” [...]».

«Eskola-eremuetan ikusten zen zatiketa handia. Familia euskaldunak edo euskaltzaleak edo euskara bultzatu nahi zutenak, ba bide batetik zihoazen, eta gero eta immigrazio handiagoa zen... eta ba hor pilaketa bat gertatzen ari zen Itzio zen eskola horretan [...]. Gizarte-mailan Itziok oso fama txarra zeukan».

«Ikastola publikatu zen baina, 20 urtetan, mantendu egin duela bere ezaugarri propioa, pribilegioa».

Horregatik, fusioaren beharra nabarmentzen dute, eta, beraz, eskola-mapa berria diseinatu eta inplementatu izanaren arrazoi nagusi gisa identifikatzen dituzte aipatutakoak. Hala ere, nabarmentzekoa da bestelako iritziak ere jaso direla, eskola-mapari arrazoi gehiago aurkitu dizkietenak: arrazoi pertsonal, politiko eta ekonomikoak.

5.1.2. Eskola-mapa berriaren helburuak

Aurreko atalean ikusi bezala, elkarriketatutako profesional guztiak edo gehienak ados daude Eibarren hezkuntza-zentro publikoetan esku hartu behar izanarekin. Helburuen kasuan, gehienek hitzetan «segregazioa gutxitzea», «ghettoak saihestea», «denak elkartzea» eta «parekatzea» bezalako ideiak entzun dira, alabaina, badira helburu ekonomikoak aipatu dituzenak ere, administrazioaren lana merkatzearekin eta erraztearekin lotuta.

«Helburu nagusia elkartzea, elkarbizitza bat lantzea ere [...]. Ez da bakarrik etorkinak edo etorkinen arazoa konpontzea, baizik eta beno, beste herrietan bezala, ikastetxe publiko bakarra egotea».

«Dirua aurrezteak [...] zentro bat zegoen Eibarren gaizki funtzionatzen zuena eta beste bat ondo. Eta fusioarekin ba ez dakit zer nahi zuten, denek gaizki funtzionatzea?».

«Zentroak batzen ditugunean ratio justuagoarekin funtzionatzen da. Irakasle gutxiagorekin betetzen dira plazak».

Horrez gain, eskola-mapa berriaren inguruko erabakiekin ados egon arren, helburuei dagokienez kritiko azaldu dira profesional batzuk: helburu ofizialak handiegiak edo plan honekin lortzeko zailak direla aipatu dute. Orokorrean hezkuntza-sistemari esleitzen zaizkion helburu eta ardurak aipatzen dituzte eta osotasun batetik heldu ezean, hezkuntzaren bidez soilik lortzea ezinezkoa dela diote.

«Nik uste dut helburuei begira momentu honetan hezkuntzari botatzen zaiola pelota handia gainera, ez? [...]. Daude gauza pila bat ezin ditugunak egin. [...]. Eskolaz kanpoko bizitzak ere eragin handia dauka horretan»

Azpitarratzeko da elkarriketatuek eskolaz kanpoko baliabideei ematen dieten garrantzia, herri-mailan eskaintzen diren jarduera ezberdinei, euskararen inguruko politikei, etorkinekiko hurbilpenari eta abar. Azken finean, herriko eta inguru zabaleko bestelako giroak, zerbitzuek, etxebizitzak eta auzoek, adibidez, segregazioan eta harremanetan duten garrantzia aipatu da elkarriketa gehienetan.

5.2. Eskola-maparen emaitzak

Eibarko eskola-mapa berriaren arrazoi eta helburuen inguruko profesionalen iritzi eta pertzepzioak jaso ostean, maparen diseinu eta inplementazioak hezkuntza-sisteman, eskoletan eta herrian izandako emaitzak zein izan diren aztertu dugu. Informazioa antolatzeko, hiru arlotan banatu ditugu emaitzak: alde batetik, segregazioari buruzkoak, bestetik, kultura- eta jatorri-aniztasunaren kudeaketaren ingurukoak, eta, azkenik, euskararekiko atxikimenduekin loturikoak.

Eibarko eskola-mapa berriaren nondik norakoak laburbildu ditzakegu profesional baten hitzak erabiliz, aldaketa objektiboak zein izan diren deskribatzen baitu: «Eskola-mapa diseinatzeaz hitz egiten dugunean DBHri buruz ari garela esango nuke. Lehen Hezkuntza zegoen bezala mantendu da eta DBH mailan fusioa baino ez da izan, 4 zentro izatetik bakarrera pasatu gara» (Eibar BHI, 4).

Beraz, aldaketa DBH mailan egin denez, Eibar BHIko gaur egungo egoerari buruzko galderak egin zaizkie bertako elkarrizketatuei. Orokorrean, ikasle kopuru handia, harremanetan eta parte-hartzean izandako aldaketa, euskararen jaitsiera eta ikasleen jarrera-aldaketa dira gehien aipatzen dituzten ideiak, baita baliabide falta ere. Horrez gain, kopuru handietan irakasleek elkar ezagutzen ez dutela, eta, beraz, beren iritzia edo hitza kontuan hartzea ezinezkoa izaten dela kontatu dute, fusioaren aurretik irakasleen arteko harremana estuagoa zela, kontaktua eta bilerak sarriago egiten zituztela. Gaur egun, aldiz, erabakiak zuzendaritzatik hartu eta email bidez bidaltzen zaizkie irakasleei, elkartzeko, komentatzeko eta iritziak elkarrekin banatzeko aukerarik gabe.

5.2.1. Eskola-maparen emaitzak eskola-segregazioan

Eskola-mapa berriaren helburu nagusi gisa identifikatu da eskola-segregazioa saihestearena; horregatik, arlo honetan izandako emaitzak zein diren aztertzea interesgarria dela uste dugu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako fusioak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskola-ibilbideetan eragina izango zuela pentsatzen zen diseinuaren eta inplementazioaren garaian, hau da, helmuga bera izanik (Eibar BHI), umeen matrikulazio-datuak aldatu egingo zirela. Hori aztertzeko, atal honetarako metodo kualitatiboaz gain metodo kuantitatibo bidezko datuak jaso dira, gaur egun HH eta LH mailetan eskola-segregazioaren egoera zein den ezagutzeko.


1. taula. Eibarko eskoletako ikasle etorri berrien kopurua ehunekotan eta ikasmailaka 2021-2022 ikasturtean Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.

	Urkizuko eskola	Arrateko Andra Mari (Urki)	Amañako eskola	J.A. Mogel Ikastola	San Andres eskola	La Salle eskola	Aldatze eskola
HH2	% 90	% 91,7	% 88	% 15,4	% 35,7	% 25	% 4
HH3	% 88,2	% 84,6	% 90	% 23,1	% 40,6	% 16,7	% 9
HH4	% 85,7	% 81,3	% 81,2	% 18,2	% 43,4	% 14,3	% 0
HH5	% 90,7	% 76,2	% 100	% 13,9	% 42,2	% 14	% 4
LH1	% 89,2	% 85	% 87,5	% 10,3	% 30	% 23	% 4,3
LH2	% 73,9	% 84,6	% 86,7	% 10,8	% 21,3	% 14	% 8
LH3	% 90,3	% 65	% 72,2	% 14,3	% 29,8	% 8,5	% 0
LH4	% 69,2	% 53,8	% 62,5	% 7,6	% 33,3	% 7,4	% 12
LH5	% 68,1	% 87,5	% 42,8	% 5,3	% 27,4	% 5,9	% 0
LH6	% 64,2	% 60,5	% 38	% 5	% 31,4	% 1,8	% 11,5
Guztira HH	% 89	% 82,3	% 89,8	% 17,6	% 40,6	% 16,9	% 4,1
Guztira LH	% 73,5	% 70,6	% 65	% 8,9	% 28,9	% 10	% 5,8
Guztira	% 78,2	% 74,2	% 75	% 12	% 33,1	% 12,6	% 5,2

Iturria: Eibarko ikastetxeetan lortutako datuak. Egileak egina.

2021-2022 ikasturteko matrikulazio-datuak izan dira jaso direnak. *Atzerritar jatorriko ikasle*aren kontzeptua definitzeko ezarri den irizpidea honakoa izan da: guraso biak Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoak dituzten ikasleak. Ondorengo taulan bildu dira 2021-2022 ikasturtean Eibarko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetako eskola guztietan izandako matrikulazio-datuak. Atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoa erabili dugu Eibarko eskoletako segregazioa alderatzeko. 2021-2022 ikasturtean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetan 2.661 ikasle matrikulatu dira Eibarren. Horietatik 1.774 publikoan eta 887 itunpekoan. DBH mailan 917 ikasle daude gaur egun publikoan eta 480 itunpekoan.

Taulan ikus dezakegun bezala, itunpekoen eta publikoen artean egon den segregazioaz gain, aipatzekoa da Eibarko eskola publikoen barruko segregazio handia. Atzerritar jatorriko ikasleen ehuneko handienak auzoetako ikastetxeetan elkartzen dira, hau da, Urkizu, Amaña eta Arrateko Andra Marin. Gainera, datuei mailaka erreparatzen badiugu, eskola horietan atzerritar jatorriko ikasleen kopurua proportzioan gero eta altuagoa dela ikus dezakegu. Taulako datu esanguratsuenak argi azaltze aldera grafiko bidez adierazita ikus ditzakegu jarraian.



7. irudia. Eibarko eskoletako atzerritar jatorriko ikasleen proportzioa ehunekotan eta ikasmaitaren arabera (HH eta LH), 2021-2022.

Iturria: Eibarko eskolak. Egileak egina.

Grafikoan azaltzen denez, atzerritar jatorriko ikasleen pilaketa Urkizuko, Arrateko Andra Mariko eta Amañako eskoletan gertatzen da, zentrotik urrutien dauden auzoetan. San Andres eskolak proportzio txikiagoa duela ikus dezakegu; izan ere, herriaren erdigunean kokatzen den eskola publikoa da. Itunpeko ikastetxea

den La Salleren proportzioa eta J.A. Mogel Ikastolarena (publikoa) bera da. Hala ere, nabarmentzekoa da itunpeko ikastetxeek jasotzen duten atzeritar jatorriko ikasleria urria. Gainera, grafiko horren bidez atzeritar jatorriko ikasleen kopuruaren eta banaketaren bilakaera erakutsi nahi da. Izan ere, HH mailan matrikulatutako kopurua handiagoa da eskola guztietan LH mailakoarekin alderatuz eta proportzio berean ikusten da gorakada eskola guztietan. Finean, atzeritar jatorriko ikasleen gorakada identifika dezakegu, baita auzoetako eskoletan gero eta atzeritar jatorriko ikasle gehiago elkartzeko joera ere.

Datuek erakusten diguten errealitateaz gain, profesionalen iritzi eta pertzepzioak ere jaso dira eskola-segregazioan izandako aldaketen inguruan. Izan ere, arestian aipatu bezala, analisi kualitatiboa ere egin da atal hau sakontasunez ezagutzeko. Horretarako, elkarriketa sakonetan lortutako informazioa erabili dugu. Eibarko eskola-mapa berriaren inplementaziotik gaur egun arte segregazioan izandako aldaketak edo eraginak zein izan diren galdetu zaie. Horren aurrean, alde batetik, Eibar BHIIn egindako aldaketen harira, batzuek eragin positiboa izan duela pentsatzen dute eta eskolan gertatzen diren gatazkak ikasleen adinari egozten dizkiote. Beste batzuek, aldiz, kontrako usteak erakutsi dituzte, hau da, ikasleen pilaketa hutsak ez duela segregazioarekin amaitzerik lotu. Gainera, DBHko bi zikloak zentro ezberdinetan bereizteak gazteenentzat erreferentziarik eza eragiten duela ere aipatu da, eta, horrek, ikasleen jarreran eta eskola-porrotean eragin nabarmena duela. Horrez gain, kopuru handien eraginaz eta atzeritar jatorriko ikasleen harremanez ere jardun dute: segregazioa ikasle asko elkartuta dauden gunetean ere gerta daitekeela aipatu dute, hau da, jatorri eta kultura ezberdinetako ikasleen elkartze hutsak ez duela elkarbizitza esan nahi.

Eibar BHIIn izan duen eraginaz gain, HH eta LH mailetakoko egoera zein den ere ezagutu nahi izan da; izan ere, hasieratik, ikasmaila horietan segregazio-arazo handia egon da. Aurrez erakutsitako datuetan ikus daitekeen gisan, elkarriketatuek maila horietan dagoen segregazio handia ere azpimarratzen dute, eta, horrez gain, egoera horretan bertako gurasoen erabakiek duten eragina ere aipatu dute.

«Segregazioa ikaragarrikoa da. Normalean 40 bat ikasle edo izan daitezke 2 urteko gelan auzoan eta 8 ikasle bakarrik daude, beste guztiek auzotik alde egiten dute. Datozenak gehienetan izaten dira guraso atzeritarrak dituztenak [...]. Ihes egiten dutenak bertakoen seme-alabak dira [...]. Auzoan bizi gara baina ez goaz auzoko eskolara [...]. Denok elkarrekin bai baina DBHn»

Gainera, Eibar BHIren sorrerak ikasle gehiago itunpeko eskoletan matrikulatzeko izan duen eraginaren pertzepzioa ere aipatzekoa da. Elkarriketatutako batek baino gehiagok aipatu du hezkuntza publikoan izandako aldaketa honek itunpeko eskolentzat izan duen onuraren sentsazioa. Horrez gain, aurrera begirako konponbide edo esku-hartzeaz galdetu zaienean arautu beharra aipatu dute, matrikulazioak auzoka eta aukera bakarra.

Amaitzeko, interesgarria da elkarriketatutako profesional batek aurrera begirako erabakiei buruz egindako hausnarketa. Erabaki-ahalmenaz hitz egin du, «bertakoek» eta «atzeritarrek» beren gizarte-posizio, harreman-sare eta kultura-

ezberdintasunen ondorioz duten erabaki-ahalmenaren diferentziaz eta horrek aurre-ra begirako eskola-mapa baten prozesuan, erabakietan eta nondik norakoetan izango duen eraginaz.

5.2.2. Eskola-maparen emaitzak jatorri- eta kultura-aniztasunaren kudeaketan

Eibarko eskola-mapa berriak jatorri- eta kultura-aniztasunari dagokionez eraginik izan duen, eta, izan badu, eragina zein izan den ezagutu nahi izan da. Elkarriketatu gehienek aipatu dituzte atzeritar jatorriko ikasleei harrera egiteko eta euskara-errefortzuetarako eskola guztietan dituzten baliabideak. Hala ere, argi gelditu da eskoletako ikasleen profilak asko baldintzatzen duela kultura-aniztasunaren kudeaketa.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetako gaur egungo egoeraz galdetu zaie, eta, kasu honetan, erantzunak bi taldetan bereizi dira. Alde batetik, atzeritar jatorriko ikasle gehien duten eskolen pertzepzioak (Amaña, Urkizu eta Arrateko Andra Mari), eta, bestetik, gutxiago dituztenenak (J.A. Mogel eta San Andres). Lehenengoen iritziz, ikasleak normaltasunez eta gustura dauden arren, hezkuntza-baliabideek zein herri-mailakoek ez dute elkarbizitza bermatuko duen plan sendorik osatzerik lortu eta hutsune handia duen esparrua da. Aldiz, bigarrenen kasuan, estaturik gabeko nazio-izaeraren ondoriozko beldurrak aipatzen dira, aurreko kasuetan bestelako lehentasun batzuen ondorioz aipatu ez direnak: euskal hizkuntza eta kultura babestu eta transmititzearen beharra. Ildo horretan, murgiltzeari buruz hitz egin du elkarriketatuetak batek. Gaztelania ez dakiten eta beren komunitateko edo jatorriko erreferentzia handirik ez dutenak errazago integratzen direla aipatzen du. Integrazioa euskalduntzearekin ulertzen dute, eta, beraz, gaztelania ez dakitenen eta ama-hizkuntza konpartitu baina gutxi elkartzen direnen kasuetan, euskalduntzea errazagoa dela diote, «gurera» ekartzea.

Kultura- eta jatorri-aniztasunaren kudeaketaz galdetu da Eibar BHIIn ere, hau da, aztertzen ari garen eskola-mapa berriaren objektu zuzenean. Horri dagokionez, fusioak izandako eraginaren inguruko iritziz ezberdinak jaso ditugun arren, gehienak ados daude baliabide gehiagoren eta eskolatik kanpoko ekimen, esku-hartze zein lanaren behar handiarekin. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere, Eibar BHIko profesional batzuen iritziz, eskola-mapa berriak ez du eragin positiborik izan kultura-aniztasunari dagokionez. LH mailan aldaketarik gertatu ez izanak, DBH mailako kopuru handiek eta kudeaketarako baliabide urriek zailtasun handia ekarri dute. Beste batzuentzat fusioaren eta elkartzearen eragina positiboa izan da eta badaude jatorri- eta kultura-aniztasunaren kudeaketarako plan zein proiektu ezberdinak. Hala ere, eskola-mapa berriaren fusioak ez du aldaketa nabarmenik ekarri, hau da, ez da berrikuntzarik edo aniztasuna lantzeko baliabide gehiagorik izan.

Orokorrean, gehienek baliabide gehiagoren beharra azpimarratzen dute gai honi heldu eta erantzun integralago bat eman ahal izateko. Hezkuntza-mailako baliabideen beharra aipatzen da, harremanak, hizkuntza, kultura-aniztasuna eta abar lantzeko. Horrez gain, ikasle guztien oinarritzko beharrak bermatuta izatearen garrantzia ere aipatzen dute profesionalak, hau da, hezkuntza-sistematik haratago doazen baliabideak.

5.2.3. Eskola-maparen emaitzak euskararekiko atxikimenduan

Analisirako azken puntua euskal kultura zein hizkuntzarekiko atxikimendua izan da. Arlo honetan, gaur egungo Eibarko eskola-segregazioaren egoerak zein inplementatutako eskola-mapa berriaren DBHko fusioak izan duten eragina ezagutu nahi izan da. Orokorrean euskararen egoera kezkarria azaldu dute hezkuntza-komunitateko profesionalek. Hala ere, globalizazioaren, teknologia berrien, Covid-19aren eta abarren eraginaren ondorio gisa identifikatzen den arazoa da. Umeentzat aisialdi euskaldunaren beharra ere nabarmentzen dute.

Horrez gain, atzeritar jatorriko ikasleen gorakadak eta segregazioaren ondorioek euskal hizkuntzan ere eragiten dutela ikusi da. HH eta LH mailetan honako pertzepzio hauek izan dira nagusi gaur egungo egoerari dagokionez: euskararen erabileraren jaitsiera nabarmena, hizkuntza eta kulturarekiko atxikimendurik eza eta ikasleen artean zein aisialdian erreferentziarik eza. J.A. Mogelesko kasuan aipagarria da hizkuntzaren arloan bizi izan duten aldaketa. Ikasleen profil jakin bat izateak euskararen erabilera bermatzeko erraztasunak ematen zizkien, eta gaur egun, DBHn elkarteak baldintzak aldatu dizkie. Euskararen inguruan kezka handiena azaldu duen eskola dela esan genezake, orain arteko baldintzek (ikasleen profilak) hizkuntzaren babesarako ahalmena ematen baitzieten.

Eskola-mapa berriaren eraginak sakontasunez ezagutzeko Eibar BHIko profesionalen pertzepzioak jaso dira. Lortutako emaitzak ezberdinak dira aurrez bizi izandako testuinguruaren arabera, hau da, ezberdin bizi dute euskararen egoera aurrez Mogel Isasin lan egindako profesionalek eta aurrez Itzion lan egindakoek. Hala ere, badira amankomunean dituzten iritziak ere: alde batetik, euskararen erabileraren jaitsiera eta hizkuntzarekiko mespretxuaren adierazpenen gorakada aipatzen dira. Dena den, nabarmentzekoa da aldaketa horiek ez direla atzeritar jatorriko ikasleen gorakadaren ondorioztat hartzen, arazo estrukturaltzat baizik. Horrez gain, baliabide gehiagoren beharra azpimarratzen da berriz ere, bai hezkuntza-mailan eta bai herri-mailan. Gainera, Eibar BHIren sorrerak baliabide gehiagoren beharra areagotu egin duela aipatu dute: herri-mailako baliabideak, Euskal Herri mailakoak, erreferenteak, aisialdi euskalduna eta ekintza erakargarriak behar direla. Azpimarratzekoa da elkarrizketatu guztiek argi dutela euskararen arazoa ezin zaiela jatorri atzeritarra dutenei egotzi. Bestelako faktore askoren ondorioak aipatzen dira, eta, horrek, atzeritar jatorriko ikasleen jarreraren eragina duela.

6. Eztabaida

Eztabaidaren atalarekin hasteko, argi ikusi da Eibarren ere segregazio sozio-espazialaren eragina badagoela, hau da, auzoetako segregazioak eskola-segregazioan ere eragina duela. Hala ere, Guiral eta Murillok (2023) dioten gisan, eskola-segregazioa auzoetako segregazioa baino askoz handiagoa da. Hori horrela, bestelako faktore batzuek pisu nabarmena dutela ikusi dugu: klaseak eta jatorriak, batez ere. Klaseari lotuta, titulartasunaren arabera segregazioa handia dela nabarmendu da; izan ere, ohikoa da segregazioa eskola publikoen eta pribatuen arteko bereizketarekin lotzea (Etcheberria *et al.*, 2018). Hala ere, jatorriaren faktorean

arreta berezia jarri da: Benito eta Gonzálezen (2007) ideari jarraituz, atzeritar jatorriko ikasleen eta, aldi berean, ikasle autoktonoen kontzentrazioa da eskola-segregazioaren inguruko kezka piztu duena.

Azken faktore horri tiraka, eskola-segregazioa immigrazioarekin eta nazio-auziarekin lotu da. Iraolak (2012) dioen bezala, nazio, hizkuntza eta kultura gutxitua izateak immigrazioarekiko diskurtso ezberdinak izatea eragiten du. Bide horretan, aipatzekoa da maparen diseinuak berak eztabaida ugari piztu zituela inplementazioaren aurretik ere, hein batean, Triandafyllidouren (1998) «bestearen» kontzeptuan oinarrituta. Analisisian jasotako informazioarekin bi talde handi bereiz ditzakegu. Alde batetik, eskola-mapa berriaren ikuspegi positiboa duten profesionalak: ikasle guztiak bateratzeak sortzen duen aniztasuna erabili dute argudio nagusi gisa, eta, horrez gain, elkarteari dagokionez J.A. Mogel Ikastolakoek izandako jarrera ezkorra eta pribilegiatua ere aipatu dute: «Ikastolakoek ez zuten nahi besteekin elkartu, eibartarrak eta euskaldunak zirenak ez zuten nahi besteekin elkartu»

Bestetik, mapa berriarekiko kritikoak diren profesionalen hitzak jaso ditugu: diseinuaren eta inplementazioaren prozesua kritikatu eta parte-hartzearen, elkarrekin adostasunak lortzearen eta lanketa handiagoaren beharra aipatu dute; horrez gain, inplementazioari begira, ikasleen kopuru handiko zentroekiko gaitzespena nagusitu da eta zentro gehiagotan oinarritutako ikasleen banaketa orekatua ardatz duen eskola-maparen aldeko apustua egin dute. Besteak beste, fusioaren aldekoek «enbidia» zutela edo «euskararen arnaspunea» apurtuko zela argudiatu dute.

Amaitzeko, Guiral eta Murillok (2023) diotenaren ildotik, eskola-segregazioaren eraginak hezkuntza-sistematik harago heltzen direla ere nabarmendu da. Aurrekari teorikoetan aipatutako justizia sozialarekin lotuta, gizartean eragina duela eta esku-hartzeak hezkuntza-sistematik harago planteatu behar direla ere nabarmendu da analisisian. Interesgarria da, baita ere, hezkuntza-arloko profesional askok gai hauekiko sentitzen duten ardura. Herri-mailako bestelako baliabiderik ez dagoenez, hezkuntza-mailan egiten ez dena ez da egiten. Horregatik, analisiarekin amaitzeko, elkarriketatutako profesional guztiek aipatutako baliabide materialez gain, babesa, elkarlana, inplikazioa eta abar ere ezinbesteko ikusten dituzte, Eusko Ikaskuntzak (2022) diotenarekin bat eginez: «Eskolak ireki behar dira herrira».

7. Ondorioak

Ikerlan honetan gizartearen isla den hezkuntza-sistemara jo dugu segregazioaren auzia aztertzeko: eskola-segregazioa, kultura- eta jatorri-aniztasuna eta euskararekiko atxikimendua izan dira aztertu diren ikergai nagusiak. Eibarko eskola-segregazioaren arazoari erantzuteko inplementatutako eskola-mapa berria izan da ikerketa-objektua, eta, besteak beste, ondorioztatu da esku-hartze horrek ez dituela ezarritako helburuak lortu: ez du eskola-segregazioa murrizterik lortu, eta, gainera, oztopo nabarmenak sortu ditu kultura- eta jatorri-aniztasunaren kudeaketarako eta euskararen atxikimendua garatzeko. Hala ere, elkarriketatuengandik jaso ditugun ikuspuntu- eta iritzi-aniztasunak baieztapen sendoak aurkeztea zailtzen du.

Analisian erabilitako eskemari jarraituz, eskola-mapa diseinatzeko eta inplementatzeko arrazoi nagusi gisa Eibarko eskola-segregazio handia aipatu dute elkarriketatuek. Horri dagokionez, titulartasun publikoko eskola batzuetan beste batzuetan baino atzerritar jatorriko ikasleen kontzentrazioa handiagoa zela ikusi da; hau da, bi eskola-ibilbide bereizten ziren Eibarren: J.A. Mogel Ikastolakoak eta gainontzeko eskola publikoetakoak. Ibilbide horietan, ikasleen profila erabat ezberdina zen, eta, horregatik, eskola-mapa berria egoera horri erantzun bat emate aldera sortu zela esan dezakegu. Zehazki, ibilbide horiekin amaitzea eta Eibarko ikasle guztiak elkartzea identifikatu dira mapa diseinatu eta inplementatzeko helburu nagusi gisa. Profesionalek mapa berriaren helburu gisa identifikatu dituzte segregazioarekin amaitzea, elkarbizitza eta denok aukera berak izatea, besteak beste; baina, horrez gain, azpimarratzekoak diren bestelako zenbait ere jaso ditugu: murrizketa ekonomikoak, baliabide gutxiago behar izatea eta administrazioarentzat ekonomikoki abantailak izatea.

Ikarketa honen ekarpen nagusia eskola-maparen emaitzak ezagutzea izan da, eta, horretarako, hiru aldagai izan ditugu kontuan: segregazioa, kultura-aniztasuna eta euskara. Orokorrean, maparen inplementaziotik gaur egunera arte izandako emaitzei dagokionez, hein batean, Eibar BHIIn titulartasun publikoko ikasle denak elkartzeak aukerak zabaldu ditu herriko adin bereko ikasleek elkar ezagutzeko. Horrek, gizartearen aniztasunaren ezagutza izateko, profil, jatorri eta kultura ezberdinetako jendearekin elkartzeko eta harreman berriak egiteko aukerak irekitzen ditu (itunpeko eskoletara doazen ikasleak kenduta). Hala ere, fusioak euskararen erabileraren beherakadan eragin nabaria izan du; erreferentziarik ez edukitzeak (lehenengo zikloa eta bigarrena herriko gune ezberdinetan banatu izanak) jarrera-arazoak ekarri ditu, bai ikasleen artean, bai irakasleekin, bai eskolarekin, eta hezkuntza-kalitatea jaitsi egin da, baliabide gutxiagorekin moldatu beharra dute. Horrez gain, kopuru horietan, komunikaziorako eta parte-hartzerako baldintzak gero eta zailagoak direla aipatu da, eta, beraz, hezkuntza-komunitateko kideek erabakietan parte hartzeko duten ahalmena erabat murriztu dela. Horrez gain, Eibar BHIIn fusioak hezkuntzaren pribatizaziorako bideak ere irekitzen dituela aipatu da, hau da, eskola publikoaren baldintzen okertzeak zentro pribatuetan izan dezakeen gorakada, hain zuzen.

Segregazioari dagokionez, hezkuntzako profesionalen iritziz eta datuen analisian ikus dezakegunez, oraindik ere handia da Eibarko eskola publikoen artean. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako mailak kinka larrian daude eta berehalako esku-hartze egoki eta planifikazioa behar dutela azpimarratu da elkarriketetan. Auzoetan kokatzen diren eskoletako matrikula kopurua gero eta txikiagoa da, eta, gainera, ehuneko ehunetan atzerritar jatorriko ikasleaz osatutako gelak gero eta gehiago dira. Horrez gain, mapa berriaren emaitza izan den Eibar BHIIn ikasle guztiak elkartu arren, badira elkartze horren barruan guettoak ikusten dituzten profesionalak ere: kudeaketarako dagoen baliabide-eskasiaren ondorioz, segregazioa edo guettizazioa gertatzeko aukerak ere areagotzen ditu.

Kultura- eta jatorri-aniztasunaren inguruan testigantza bidez jasotakoaren harira, ondorengo esan dezakegu: alde batetik, atzerritar jatorriko ikasleen kopuru handia

duten eskoletan zailtasun handiak dituzte Euskal Herriko hizkuntza eta kultura lantzeko; izan ere, ikasle horiek ez dute inongo erreferentziarik edo eredurik eskolako kideen artean, eta, askotan, ezta etxean edo herrian ere. Bestetik, eskola guztietan kultura-aniztasunaren inguruko lanketa egokia egiteko baliabide gutxi dituztela aipatu da, bai eskolan bertan, baita herriarekiko loturari dagokionez ere. Horrez gain, egoera horretan egindako eskola-maparekin, hau da, fusioarekin, ez da gai hau lantzeko programa edo plan gehigarririk eskaini, ezta baliabide gehiagorik ezarri ere.

Azkenik, euskararekiko atxikimenduari eta erabilerari dagokienez, beherakada handia nabarmendu da. Testuinguru erdaldunetan, atzeritar jatorriko ikasleentzat atxikimendua garatzea oso zaila dela azpimarratu da, bai denek jatorri atzeritarra duten kasuetan baita bertakoak direnetan ere, orokorrean denek hitz egiten baitute gaztelaniaz. Azpimarratzekoa da bai herri-mailan bai hezkuntza-mailan euskararen erabilera eta atxikimendua lantzeko dagoen baliabide-gabezia. Horri dagokionez, ume eta gazteentzat aisialdirako eta espazio ludikorako materiala, baldintzak eta baliabideak beharrezkoak dira.

Orokorrean, egindako bederatzi elkarrizketetan bizipenak oso ezberdinak direla ikusi dugu. Eskolaren arabera testuingurua oso ezberdina denez, iritziak eta pertzepzioak ere aldatu egiten dira. Argi dago eskola-mapa berria oso ezberdin bizi izan dela, bai diseinuan eta inplementazioan zein gaur egungo emaitzen interpretazio edo bizipenetan. Hala ere, laburtze aldera, eta azken ondorio gisa, Eibarko eskola-mapa berritzea beharrezkoa zela ukaezina da; alabaina, hutsune nabariak erakusten ditu aurrera ateratako planak. Elkar ezagutzearen, elkarbizitzaren eta aniztasunaren garrantzia baztertu gabe, esan dezakegu, Eibar BHIren fusioak ez duela esperotako eraginik izan segregazioari, kultura- eta jatorri-aniztasunari eta euskararekiko atxikimenduari dagokienez. Izan ere, kopuru handiek, erreferentziarik ezak eta baliabide-urritasunak oztopo nabarmenak jartzen dituzte.

Aurrera begira, hutsune horiek osatzea eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza barne hartuko dituen plan berri bat egitea beharrezko ikusten da. Horretarako, eta herrian azken urteetan gertatutako gatazka saiheste aldera, herritarren eta hezkuntza-komunitateko profesionalen parte-hartzea, komunikazioa eta lanketa egokia bermatu beharko lirakekeela uste dugu. Horrez gain, baliabide gehiagoren beharra nabarmena da, bai hezkuntza-mailan eta bai herri-mailan. Amaitzeko, J.A. Mogel Ikastolako guraso-elkartearen 2015eko txostenean aipatzen denaren haritik, eta ikerketa honetan jasotako informazioa kontuan hartuta, ikasleen nahasketa eta elkarbizitzarako herri-mailan dauden zentro ezberdinak erabiltzeko aukera proposatzen da, kopuru txikiagoetan, erreferenteekin (1-4 mailak) eta baliabide gehiagorekin.

8. Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiet lan honetarako ezinbestekoak izan diren bederatzi elkarrizketetako parte-hartzaileei, euren prestutasuna erakustearren. Eskerrak baita ere gaia landu duten guraso-elkarteko kideei, Onintza Odriozolari, Jone Amuategiri, etxekoei, eta Iker Iraola eta Arkaitz Fullaondori artikulu honen gorabeheretan laguntzeagatik.

9. Bibliografia

- Aztiker (2018). *Hezkuntza esparrua eta euskalduntzea EAEn (1983-2016). Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea eta 138/1983 Dekretua onartu ondorengo bilakaera eta beren eragina gazteen euskalduntzean*. Euskal Herrian Euskaraz. https://www.naiz.eus/media/asset_publics/resources/000/469/779/original/20180206-ehe-txostena.pdf
- Amuategi, Jone (2022). *Euskara eskola aukeratzeko irizpide gisa eta ezkutuko beste faktore batzuk: Eibarko kasua* (Master Amaierako Lan argitaratu gabea). UEU. UPV/EHU.
- Arantzamendi, Imanol (2023). «Askotan da horma baten kontra jotie modun». *Euskararen erabilera immigrazio tasa altua duen eskola batean* (Gradu Amaierako Lan argitaratu gabea). UPV/EHU.
- Barquín, Amelia (2017). Euskara, generoa, klasea eta jatorria eskolan. Zenbait gogoeta. *Jakin*, 221-222, 107-130.
- Caro, María Teresa; Valverde, María Teresa, eta González, María (2015). *Guía de Trabajos de Fin de Grado en Educación*. Pirámide.
- Conde, Fernando (2009). *Análisis sociológico del sistema de discursos*. Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Etxeberria, Félix, eta beste (2018). Acogida del alumnado inmigrante recién llegado en la escuela inclusiva. El caso de Cataluña, País Vasco y Francia. *Revista de Educación Social [RES]*, 27, 93-119. https://eduso.net/res/wp-content/uploads/2018/08/acogidaalunmi_res_27.pdf
- Eusko Ikaskuntza (2022). *Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua: erronkak eta kudeatzeko proposamenak*. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2016). *2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana*. <https://www.ehige.eus/wp-content/uploads/2019/06/2016-2020ko-eskola-inklusi-boaren-eta-kultura-artekoaren-eremuan-ikasle-etorkinei-hezkuntza-arreta-emateko-II.-Plana.pdf>
- Eusko Jaurlaritza (2018). *Atzeritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak*. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/aniztasuna/Atzeritar_jatorriko_ikasleen_eskolatzea_EAEko_eskola_sisteman.pdf
- Guiral, Claudia, eta Murillo, F.Javier (2023). Comprendiendo la segregación escolar del alumnado económicamente desfavorecido y del alumnado con necesidades educativas especiales en el contexto local. *Revista Complutense de Educación*, 35(2), 2024: 325-338.
- González, Isaac; Benito, Ricard, eta Albaigés, Bernat (2023). School Segregation at the Local Level: Contextual and Institutional Factors in Catalonia. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 183: 39-56. Doi: 10.5477/cis/reis.183.39
- J.A. Mogel Ikastolako guraso-elkartearen txostena (2015). *Eibartarrentzako aukerak* (argitaragabea). <https://fdocuments.ec/document/eibartarrentzako-aukerak-etorkinak-ikastetxe-publikoak-1882-334-1775-ikastetxe.html?page=1>
- Iraola, Iker (2012). Estatutik gabeko nazionalismoak eta migrazioak. Euskal kasutik abiatutik begirada (Stateless Nationalisms and Migrations. A Basque approach). In *XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza* (961-976. or.). Eusko Ikaskuntza. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/congresos/17/09610976.pdf>
- Iraola, Iker (2014). Abertzaletasunaren bilakaera espainiar immigrazioarekiko: erreakziotik integrazioa. *Uztaro*, 90, 99-119.
- Juaristi, Patxi (2003). *Gizarte Ikerketarako Teknikak. Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Kymlicka, Will (1996). *Ciudadanía multicultural. Una teoría liberal de los derechos de las minorías (Estado y Sociedad)*. Paidós.
- Madaria, Borja, eta Vila, Luis (2020). Segregaciones Escolares y Desigualdad de Oportunidades Educativas del Alumnado Extranjero en València. *Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 18(4), 269-299. <https://doi.org/10.15366/reice2020.18.4.011>
- López, Ana María (2005). *Inmigrantes y Estados: la respuesta política ante la cuestión migratoria*. Anthropos.
- Santiago, Karlos; Jimenez, Olaia, eta Lukas, J.F. (2018). Metodo mistoak Hezkuntza-ikerkuntzan. *Tantak*, 30, 87-11.
- Silván, Eva (2021). *Evolución sociodemográfica del alumnado en Euskadi*. https://silvanmiracle.com/wp-content/uploads/2021/10/Analisis-Educacion-Euskadi_2021.pdf
- Steilas (2021). *Eskola segregazioa itundua dago. Nafarroako hezkuntza sistemaren lotsa. Eskola segregazioa itundua dago. Nafarroako hezkuntza-sistemaren lotsa. STEILAS.pdf*
- Triandafyllidou, Anna (1998). National identity and the «other». *Ethnic and Radical Studies*, 21, 593-612.
- Young, Diane S., eta Casey, Erin A., (2018). An examination of the Sufficiency of Small Qualitative Samples. *Social Work & Criminal Justice Publications*, 500. https://digitalcommons.tacoma.uw.edu/socialwork_pub/500

